



Esp. kodea: 2024PHBP0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Kudeaketa administratiboko teknikaria (2
dotazio)

AURRETIAZKO INFORMAZIOA

BIGARREN PROBA: B ZATIA

Zati teoriko-praktikoa: idatziz ebaztea zenbait kasu.

- Data: **2025eko urriaren 9an**
- Ordua: **09:00tan**
- Lekua: **Kulturate** (Otalora lizentziaduna kaleko sarreratik).

JARRAIBIDEAK

Irakurri arretaz jarraibide hauek. Oso garrantzitsuak dira azterketa nola egin jakiteko. Azterketa egiteko moduari buruzko zalantzarik edo zailtasunik baduzu, galdetu zaintzaileei azterketa hasi aurretik.

EZ IDATZI EZER AGINDUA EMAN ARTE.

➤ Mahaiaren gainean ondoko materiala aurkituko duzu:

- jarraibideen bi orri (euskaraz eta gaztelaniaz)
- kartazal handia
- kartazal txikia
- identifikazio txartela
- zirriborrarako orriak.

Zerbait falta bada, eskua altxa eta eskatu zaintzaileari.

➤ Azterketa egin bitartean, zure **NANa** mahai gainean utzi behar duzu, ikusteko moduan. **Telefono mugikorra ekarri baduzu, itzali egin behar duzu.** Azterketan zehar, eman zaizun materiala, azterketan bertan banatu zaizuna, NANa eta **boligrafoa (beltza edo urdina)** baino ezingo dituzu eduki mahai gainean.

➤ Isiltasunak erabatekoa izan behar du azterketa gunean zauden denbora oro. Besteentzat desegokia edo gogaikarria den edozein jokabidek esparrutik kanporatzea ekarriko du.

Kodea	CL25/02075	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1D169.N.deZG		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1D169N.deZG		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2024PHBP0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Kudeaketa administratiboko teknikaria (2
dotazio)

1. Ez idatzi ezer kartazaletan. Kartazal handian zein txikian egindako edozein identifikazio ikurrek automatikoki ekarriko dute ariketa baliogabetzea.
2. Ariketa era anonimoan zuzenduko da; beraz, **EZ idatzi zure izen-abizenak azterketaren orrietan.**
3. **Idatzi, agindua ematen zaizunean**, izena, bi abizenak eta NA zenbakia identifikazio txartelean, **beste inon ez**. Idatzi data eta probaren izena.
4. Sartu identifikazio txartela kartazal txikian, berau itxi eta kartazal handian sartu. Ez itxi kartazal handia azterketaren amaieran erantzun orria sartu arte.
5. Azterketak bi zati ditu idatziz ebazteko. Ariketa bakoitzari dagokion puntuazioa enuntziatuarekin batera jasota dago.
6. Galderei boligrafo beltzez edo urdinez erantzun behar diezu, erantzunei dagokien tartean.
7. Zirriborro gisa erabiltzeko dituzun orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.
8. Kasu batzuk euskaraz erantzun behar dituzu, eta beste batzuk gaztelaniaz. Enuntziatuan adierazten da erabili behar duzun hizkuntza.
9. Egingo duzun azterketa idatziz erantzuteko 2 ordu eta erdi izango dituzu.
10. **Ariketa amaitzen duzunean**, sartu azterketa kartazal handian; altxa eskua eta itxaron zaintzailea hurbildu arte. Gogoratu ezin dela identifikaziorik edo markarik agertu kartazaletan edo/eta azterketan. Azterketa entregatu ondoren, irten ahal izango zara.
11. Azterketa amaitzeko 10 minutu falta direnean ezin izango da ariketa entregatu eta irten. Kasu honetan, ekitaldia amaitu arte itxaron beharko da azterketa guztiak jaso eta irten ahal izateko.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

Kodea	CL25/02075	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1D169.N.deZG			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1D169N.deZG			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				